

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

R9/2016 Ebazpena

11/2012 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 4an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) aurka planteatutako eskumen-gatazkaren inguruan. Gatazkaren gaia ZERGAPETU (NAN:-----) jaunaren egoitza fiskala zehaztea da. Arbitraje Batzorde honetan 11/2012 espediente zenbakiarekin izapidetu da, eta Javier Muguruza Arresek jardun du txostengile.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau BFAk planteatu zuen, Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen 2012ko otsailaren 22ko idatzi baten bitartez, eta 2012ko otsailaren 24an sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

Idazki horretatik eta espedientean jasotako dokumentaziotik, laburbildutako aurrekari hauek atera dira:

- 1) ZERGAPEKO jauna BFAREN tributuen ikuskapenaren aurrean agertu zen, Bilbon, 2006ko otsailaren 22an, 1. SOZIETATEA sozietatearekin erlazionatutako dokumentazioa aurkeztera. Sozietateak Bilbon du egoitza, eta bera zen administratzaile bakarra; adierazi zuenez, 1. UDALERRIKO (Bizkaia) 1. HELBIDEAN zuen egoitza fiskala. Adierazi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

zuen, halaber, alokatutako bulego batean zegoela bera administratzaile bakartzat zeukan erakundearen egoitza soziala, gutxitan izaten zela han, eta ibilgailuen salerosketan jarduteko lokal bat zuela 1. UDALERRIAN (Bizkaia), 2. EGOITZAN, bere amaren jabetzakoa, zeina berarekin bizi baitzen. Orobat adierazi zuen 2. UDALERRIKO (Bizkaia) gunean egiten zuela salerosten zituen ibilgailuen IAT kontrola.

2) Agerraldi horren ondorioz, BFaren tributuen ikuskapenak txosten bat prestatu zuen, 2006ko martxoaren 28koa, eta honako hau adierazten zuen bertan: nahiz eta ZERGAPEKO jaunak formalki 1. AUTONOMIA-ERKIDEGOAN eduki egoitza zerga-ondorioetarako, eta nahiz eta 2000tik ez duen aurkeztu PFEZ aitortpenik Bizkaian, ez dio inongo unetan utzi bere egoitza 1. UDALERRIAN (Bizkaia) izateari.

3) BFaren ikuskapenak, ZERGAPEKO jaunaren adierazpenean ez ezik, honako hauetan oinarritzen zuen bere ondorioa: a) Ikuskatzaileek 1. UDALERRIKO (Bizkaia) udaletxera egindako bisitan, zehaztu gabeko data batean, funtzionarioek adierazi zuten ezaguna zela herri horretan eta 3. EGOITZAN zuela egoitza; b) ikuskapeneko kideek helbide hura bisitatu zuten, eta han elkarrizketa bat izan zuten ZERGAPEKO jaunaren izatezko bikotekidea zela adierazi zuen norbaitekin; esan zenez, ezin zituen arretaz hartu, elkarrekin zuten semea zaintzen baitzegoen; c) ZERGAPEKO jaunak saleroste-eskitura bat egin zuen 2004ko abuztuaren 3an eta hipoteka-maileguko eskitura bat 2002ko abenduaren 31n, Bilboko notario banaren bitartez, eta horietan 1. UDALERRIKO 3. EGOITZA adierazi zuen bere egoitza gisa; c) Madrilan ere egin zuen notario-eskitura bat, 2002ko urriaren 15ean, eta hor ere 1. UDALERRIKO 3. EGOITZA adierazi zuen bere egoitza gisa; eskitura horretan, lekuz aldatu zuen berak administratutako 2. SOZIETATEA sozietatearen egoitza, helbide horretaraxe aldatu ere; d) 2005eko irailaren 27an

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

dokumentazio-eskaera bat egin zion 1. UDALERRIKO Udalari, 3. EGOITZAKO etxebizitzako planoak eskatzeko, eta bertan bere egoitza partikular gisa ageri zen helbide hori; e) 2004ko apirilaren 29an obralizentzia bat eskatu zion 1. UDALERRIKO Udalari, 3. EGOITZAN kokatutako etxerako, eta aurrekontu bat erantsi zen 1. PERTSONAREN izenean, non adierazten baitzen helbide horretan zuela egoitza.

4) 2006ko apirilaren 11n, BFAK ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskala aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEARI, baita eskatu ere bere iritzia azal zezala 1. AUTONOMIA-ERKIDEGOTIK (hor zeukan adierazia) Bizkaiko 1. UDALERRIRAKO lekualdaketari buruz eta atzeraeragineko datari buruz. Ez da ageri ZAEAK proposamenari emandako erantzunik.

5) 2011ko azaroaren 28an, BFAK berriz helarazi zion ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskala aldatzeko proposamena ZAEARI. Bigarren proposamenerako ere ez zuenez jaso erantzunik, gatazka hau planteatu zuen BFAK.

2. BFAK bere planteamendu-idatzian azaltzen du zer argudioren arabera ulertzen duen ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskala 1. UDALERRIAN (Bizkaia) dagoela.

Haren iritziz, espedientean hartutako frogek egiaztatzen dute udalerrri horretan daukela eta modu jarraituan eduki duela ohiko bizilekua; beraz, Ekonomia Itunak 43. artikuluan agintzen duenaren arabera, ulertu behar da, kontrako frogarik ezean, zergapekoa 1. UDALERRIAN jarraitzen duela zergaondorioetarako eta, hortaz, PFEZaren zergaldiko egun kopuru handiagoa eman duenez Bizkaiko Lurralde Historikoan, ulertu behar da Bizkaian duela ohiko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

bizilekua eta, beraz, baita egoitza fiskala ere. Espedientean ez da ageri eta ZAEAk ere ez du alegatu ustekizun hori indargabetzen duen frogarik.

3. 2015eko azaroaren 25eko idatzi baten bitartez (biharamunean sartu zen erregistroan), ZAEAk alegazioak aurkeztu zituen.

Alegaziotan adierazten duenez, Estatistikako Institutu Nazionalaren erroldako egoitza-datuen arabera ZERGAPEKOAK 3. UDALERRIKO (1. AUTONOMIA-ERKIDEGOIA) 4. EGOITZAN izan zuen bizilekua 2006. eta 2007. urteetan, eta Madrilgo 5. EGOITZAN, berriz, 2008tik 2011ra bitartean. ZAEAREN datu-basean 1996ko maiatzaren 14an sartu zen altan, 1. UDALERRIKO 1. EGOITZAKO egoitzarekin. 2001eko abenduaren 21ean 036 Eredua aurkeztu zuen, 3. UDALERRIKO 6. EGOITZAN jardueraren hasiera aitortzeko eta egoitza fiskala aipatutako helbidera eramateko.

ZAEAk, orobat, adierazten du ZERGAPEKOAK Administrazio horretan aurkeztu zuela 2006ko, 2007ko eta 2009ko PFEZ aitortpena, eta azken horretan adierazitakoaren arabera Madrilgo 5. EGOITZARA eramaten zuela egoitza fiskala. Hainbat kontu dituela zabalik Euskadiko banku-bulegoetan, eta bat 2011n 4. UDALERRIAN (Balear Uharteak) irekita, non Madrilgo 5. EGOITZA ageri baita posta-helbide gisa.

Era berean, ZAEAk azaltzen du ZERGAPEKOA bi sozietateren administratzaile bakar gisa ageri dela: 3. SOZIETATEA, egoitza Madrilen duena, eta 4. SOZIETATEA, egoitza 5. UDALERRIAN (Madril) duena. Gatazka honen jakinarazpena 4. SOZIETATEA sozietateko egoitzan egin zitzaioela, 5. UDALERRIAN, eta haren NANean Madrilgo 5. EGOITZA ageri dela egoitza gisa.

ZAEAk, aipatutako alegazioen idatzian, adierazten du ezen, BFAK bidalitako aurrekariak ikusita, bere ustez ZERGAPEKO jaunaren egoitza Bizkaian

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

kokatuta egon zitekeela 2002. urtetik 2005era bitartean. Hurrengo urteei dagokienez, ulertzen du zenbait frogak lurralde komunarekin lotzen dutela zergapekoa. Nabarmengarriak dira, besteak beste: a) EINen Madrilgo egoiliar gisa ageri da, 5. EGOITZAKO kalean; b) helbide horixe ageri da hark 2008an berritutako NANean; c) 2006, 2007 eta 2009ko PFEZaren aitortpenak ZAEAn aurkeztu zituen, eta 2009koan bere egoitza fiskala aldatu eta Madrilgo 5. EGOITZAN kokatu zuen; d) Balear Uharleetan zabalik daukan banku-kontuan helbide horixe ageri da postarako; e) bere jarduera ekonomikoa Madrilen soil-soilik gauzatzen du, egoitza probintzia horretan duten bi sozietateren administratzaile bakar gisa, eta horietako batean jakinarazi zitzaion gatazka hau planteatu zela.

ZAEAk, bere alegazio-idatzian, honako hau eskatzen dio Arbitraje Batzorde honi: onar dezala amore-ematea 2002tik 2005erako aldietarako, onarturik ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskala Bizkaiko 1. UDALERRIAN zegoela ekitaldi horietan.

4. Espedientea amaituta, ZAEari, BFari eta ZERGAPEKO jaunari azaldu zitzaien. BFAk alegazioak aurkeztu zituen, 2015eko azaroaren 20ko idatzi baten bitartez, eta hurrengo egunean sartu zen Arbitraje Batzordean.

Bertan adierazten duenez, behin ezagututa espedientearen ikustaldiaren izapidean ZAEAk amore eman duela “Bizkaiko Foru Aldundiak erreferentziako espedientearen adierazitako asmoari dagokionez, espedienteari jarraikiz egiaztatuta geratu zelarik zergaduna Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi izan zela 2002tik 2005era, biak barne, (...) ez du zer esatekorik aipaturako amore-emateari dagokionez, eta Arbitraje Batzordeak onartu egin beharko luke”. Eskatzen du, hala, “onartzeko erabakia hartzeko eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutakoaren arabera ebazteko gatazka hau, amore-ematea onartzuz”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

Ez ZAEAk ez ZERGAPEKO jaunak ez dute aurkeztu alegaziorik.

5.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan planteatutako auzia honako hau da: ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskala non dagoen zehaztea.

2012ko otsailaren 24an sartu zen Arbitraje Batzorde honetan gatazka planteatzeko idatzia, non BFAk eskatzen baitzuen bidezkotzat jotzeko zuzenketa egitea, 2002tik 1. UDALERRIAN (Bizkaia) kokatuta zegoelakoan.

Hasierako alegazioen idatzian ZAEAk onartu egin zuen ZERGAPEKO jaunaren bizilekua Bizkaian zegoela 2002tik 2005era bitartean. Urte horiexei egin zion erreferentzia BFAk gatazka planteatu aurretik bizilekua aldatzeko egindako proposamenetan. ZAEAk ez zion erantzun, eta horrela eman zion bide gatazka bideratzeari. Adostasun horri amore-emate esaten dio ZAEAk. Baina, idazki berean, ZAEAk, nahiz eta ez duen berariaz eskatzen adieraz dadila 2005aren ondoko urteetan zergapekoaren egoitza fiskala lurralde komunean kokatuta zegoenik, honako hau dio: “Badaude zergapekoa lurralde komunarekin lotzen duten zantzuak”.

Bere azken alegazioen idatzian, BFAk eskatzen du amore-ematea onar dadila eta “gatazka hau Foru Aldundi honek eskatutakoaren arabera” ebatz dadila.

Horiek horrela, agerikoa da ez duela gatazkarik sortzen ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskalaren 2002tik 2005era (biak barne) bitarteko kokaguneak; izan ere, bi alderdiak bat datoz Bizkaiko kokalekuari dagokionez.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

Hala ere, ondorioztatu behar da oraindik ere gatazka sortzen duela ZERGAPEKO jaunaren egoitza fiskalaren 2006. urteko eta ondorengoetako kokaguneak; izan ere, ZAEAk ez du ekitaldi horietara hedatu kokalekua Bizkaian den onarpena, eta BFAk, behin gatazka planteatuta, 2002tik 2005erako (biak barne) ekitaldietara mugatu du egoitza Bizkaian zegoelako asmoa, ondorengo ekitaldietara hedatzeari uko eginez.

2. Eztabaida hau Ekonomia Itunaren 43.Lau.b) artikulua aplikatuz ebatzi behar da.

Laugarren zenbakian, honako hau xedatzen du manu horrek:

«Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da.

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

Eta Lehenengo zenbakian ezartzen du zer arauen arabera zehazten den Espainiako egoiliar den pertsona fisikoak noiz duen bere ohiko bizilekua Euskadin, baldintza hauetan:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehena. Lurrealde horretan zergaldiko egun gehien ematea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematea, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, Oinordetza eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

Dohaintzen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoen ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean – profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken bizilekua.

3.- Espedientean jasotako datuak Administrazio bien txosten eta idazkietan jasotakoak dira betiere; izan ere, bietako ezeinek ez du gehitu oinarri duten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala.</i>

dokumentazioa. Praktikan, 2005eko eta aurretiko ekitaldietara mugatzen dira ZERGAPEKO jauna Bizkaian bizi zen zantzu guztiak.

Ondoriozta liteke BFaren ikuskatzaileak 1. UDALERRIKO (BIZKAIA) 3. EGOITZARA eta herri horretako Udalera egindako bisita 2006 hasieran egin zela, baina txostenean ez da zehazten eginbideon data zehatza. Eginbide bakarrak du 2005aren ondorengo data; zehazki, 2006ko otsailaren 22koa, non ZERGAPEKO jaunak berak adierazi baitzien BFAko jarduleei 1. UDALERRIAN bizi dela. Hala ere, desberdinak dira bertan jasotako helbidea, 1. EGOITZARENA, eta txostenaren arabera 1. UDALERRIKO Udaleko funtzionarioek haren egoitza gisa adierazitakoa.

ZAEAK ZERGAPEKO jaunak 2006tik aurrera egoitza Madrilen zuen froga gisa adierazitako zantzuetatik, adierazgarria izanik ere, balio erlatiboa du Madrilen erroldatuta egoteak eta, ondorioz, haren NANean erroldan jasotako helbidea agertzeak, ZAEAK berak beste gatazka batzuetan ere esan duen bezala.

Ezin denez frogatutzat jo ZERGAPEKO jaunak Madrilen edo Bizkaian duen ohiko bizilekua, Itunaren 43.Bat artikuluko bigarren arauaren arabera, honako lurralde honetan finkatu beharko litzateke haren egoitza: PFEZaren zerga-oinarri gehiena non lortzen duen, bazter utzita errentak eta kapital higigarrien ondoriozko ondare-irabaziak, bai eta gardentasun fiskaleko araubidean inputatutako oinarriak ere, salbu eta profesionala.

Administraziootako ezeinek ez duenez aurkeztu ZERGAPEKO jaunaren PFEZaren zerga-oinarriaren osaerari buruzko daturik, arau horrek ere ez du balio haren ohiko bizilekua non den zehazteko.

Horregatik, erabateko garrantzia hartzen du ZERGAPEKO jaunak, ZAEAK adierazten duen moduan eta BFAk ukatu gabe, 2006, 2007 eta 2009ko PFEZ aitorpenak ZAEAn eta Madrilen adierazitako egoitza batekin aurkezteak. Izan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2012	R9/2016	04-05.-2016	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala.

ere, hain zuzen, honako hau ezartzen du Itunaren 43.Bat artikuluko hirugarren arauak, behin aurreko biak baztertuz gero aplikatu beharrekoak: berak errentaren gaineko zergaren ondorioetarako adierazitako azken egoitzari dagokion lurraldea izango da egoitza Espainian duen pertsona fisiko baten egoitza fiskala.

Eta, beraz, nahitaez ondorioztatu behar dugu, beste frogagarri batzuen faltan, lurralde komunean egon dela, Madrilen, ZERGAPEKO jaunaren ohiko bizilekua 2006. urtean eta hurrengoetan, eta, ondorioz, baita haren zerga-egoitza ere.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HAU ERABAKI DU

1.- Adieraztea ZERGAPEKO jaunaren (NAN-----) egoitza fiskala Bizkaian zegoela 2002tik 2005era bitartean, biak barne, eta Madrilen, berriz, 2006tik 2009rako ekitaldietan, espedientean ekitaldi horiei buruzko datuak bakarrik baitaude.

2. artikulua. Jarduketak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta ZERGAPEKO jaunari jakinaraztea.